


BALKOI
ATZEAN
EMAKUMEAK
KANTARI

SINOPSIS

Amona;
Zer abesti kantatzen zenituen gaztetan?
Nolakoak ziren egiten zenituen antzezlanak?
Zein pertsonaiak?

Aktore bat ezagutu ez zuen amonarekin hizketan ari da. Ulertu nahi du nola izan zen bere auzokideak publikoa bihurtzea eta sukaldea eszenatoki, gerra ostean. Galdetzeak gogorarazteko balio dio, eta horrela deskubrituko du zer dagoen bere amonaz beregan: emakume belaunaldi hartaz gu guztiongan.

Autobiografia, dokumentu-antzerkia eta objektu-antzerkia hibrido perfektua dira ipuin, antzerki edo agian kontzertu bat izan litekeen adierazpenari egindako oda honetarako.



Proiektu hau finantziatzen du:

Programa Innova Cultura. Investigación y creación 2023

Programa Innova Cultura. Producción y exhibición 2025

Nafar Gobernuako Artem Pro 2025 diru-laguntza

Ikerketak iraganera itzultzea bilatu du, gure oraina nahasteko, Errepublika garaiko Erdialdeko emakume artisten artearen bidez. Ikerketa lan dokumental eta autobiografiko batetik abiatzen da, emakumeekin lotutako nortasun artistiko bat berreraikitze; emakume hauek denbora puska batez haien talentuak publikoarekin partekatu zituzten baina gerra ondoren eremu pribatura zokoratu zituzten. Artista horietako bat Adriana Zaratiegui izan zen, sortzailearen amona.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta dramaturgia: Adriana Salvo

Antzezleak: Adriana Salvo
Javier Salvo
Xabier Salvo
Jare Salvo (Partehartze berezia)

Kanpo begirada: Mikele Urroz

Objektuen antzerkirako aholkularitza: Shaday Larios

Aholkularitza dramaturgikoa: María Velasco

Itzulpena: Iñigo Aranbarri

Ekoizpena: Boga-Boga

Ekoizpena ejekutiboa: Lucía Ezker

Argiztapena: David Bernués

Jantziak: Aiora Ganuza

Eszenografia: Boga-Boga

Eszenografia eraikuntza: Raúl Arraiza

Proiektzioak: Acrónica Producciones

Irudia: Sandra Vallejo

Komunikazioa: Carolina Otamendi, Paipái.

IA aholularitza: Zarys Falcón

Ahots aholkularitza: Cristina Arocena

Mugimendu aholkularitza: Nora Ochoa de Olza

Eszenografiako margoa: Javier Esquíroz

Soinu edizioa: Carmen Cañada

Animazio edizioa: Alberto Peranton

Bideoa eta argazkia: Berpiztu audiovisuales

Konposizio Musikala: Rebeca Guerra y Jorge Sánchez

Txistua: Ismael Yagüe



SORTZAILEAREN OHARRA

Nire izena Adriana da, nire amona bezala, bere amona bezala deitzen zena. Ez genuen elkar ezagutu, baina urteak daramatzat imajinatzen, nahiz eta berak ez ninduen sekula pentsatu.

Partekatzen duguna izena eta artearekiko maitasuna baino zerbait gehiago delako susmoa daukat betidanik. Testuinguru historikoaren desberdintasun handiek baldintzatutako maitasuna.

Nire amonak, gerra ostean, herriko jendearentzat abesten zuen beti irekita zuen balkoiaren atzean; negu hotza izan arren.

Eta ni, egokitu zaidan garai honetan, eszenatokira igo eta neure burua ikustarazi badezaket ere...


Zergatik sentitzen dut nirea ez den leku bat okupatzen nabilela?

Zergatik nire lankideak diren gizonek baino gehiago ahalegindu behar naizela sentitzen dut?

Zer dago nigan, nire amonarena dena? Zer dago emakumeongan, haiek guztiena?

Bera bilatzea da nik nire burua aurkitzeko modua, artista eta emakume gisa.

Nola bilatzen dudan kontatzea, nire bizipenetatik bilaketa kolektibo bat egiteko gonbidapena luzatzeko dudan modua da.



PROIEKTUA ETA BERE INTERESGUNEAK

GENERO-IKUSPEGIA

Isiltasunak, ikusezintasunak kulturen eta emakumeenganako indarkeriak, adierazpen artistikoa bere edozein formatan gizonei dagokiela ikastera eraman gaituztela hausnartzeko gonbidapena.

MEMORIA HISTORIKOA

Memoria kolektiboari egindako ekarpena, landa-inguruneko emakume artisten artxiboen bidez, Errepublikatik gaur egunera arte. Haiek eta haien talentuak ospatzea, gu haiengan gure buruak ezagutarazteko modu bat bezala.

BELAUNALDIEN ARTEKO ETA FAMILIAKO ANTZERKIA

Lau belaunaldiren arteko elkarriketa eszenan, antzerki autobiografikoaren eta familiako antzerki-tradizio luze baten bidez.

EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

Euskararen erabilerara eta presentziara hurbilketa Nafarroako erdialdeko bizitza kulturean denboran zehar.

BITARTEKARITZA

Gure talentuak adierazteko gonbidapena eta haien inguruko hausnarketa genero-ikuspegitik, hezkuntzaren eta artearen esparruan ibilbide luzea duen talde baten bitartez.



TALDE ARTISTIKOA

ADRIANA SALVO



Granadako Quinto Espiral-ean Aktore Poetika Prestakuntza egin zuen 2005-2008 urteetan. Ondoren, Madrilén prestatu zen Lorena García de las Bayonasekin Aktorearen Zentroan, 6 ikasturte eginez. Ana Laanekin Linklater Ahots Metodoan trebatu zen, Miguel Bardemekin kameraren aurrean interpretazioa edo antzerki erreferenteak diren Alfredo Sanzol, Consuelo Trujillo, Andrés Lima, Catalina Lladó, Pablo Messiez, Julián Fuentes Reta edo Denise Depreyoux-ekin besteak beste. Pedagogia aktiboetan trebatutako irakaslea ere bada, Genero eta Kultur ikasketetan trebatua.

Madrilen egindako lanen artean honako hauek dira aipagarrienak: David Ramiro Ruedaren zuzendaritzapean «Píntame» eta «la Cicatriz», «Lorena García de las Bayonas» («47.Artikulu») edo «Iñaki Nietoren Maitasun Minuskuloak». Cronopia films-en «Blue Lips» luzemetraietan parte hartu du, baita Tus Ojos-en «Victoria 20-30» filmean ere. Duela gutxi RTVEko «Ana Tramel» telesailean lan egin du. Sorterrira itzuli zenetik, Boga-Boga sortzen du non aktore, sortzaile eta ekoizle moduan ibiltzen da; bere azken ekoizpena Behi-Jasa izan delarik.

JAVIER SALVO



Bere prestakuntzari hasiera eman zion 1976. urtean, Lebel Blanco Eskolan eta Stanislavsky Metodoarekin, T.E.N. antzerki taldean José Carlos Plazarekin. Antzerki klasikoko interpretazio ikastaroak egiten ditu, Bertolt Brech, Chejov Teknika, Clown, eta beste antzerki-diziplina batzuk Lydsay Kempek, José Monleónek, Guillermo Herasek, Bertí Tobíasek, Yayo Cáceresek edo Alfredo Sanzolek, besteak beste, emandakoak. Gainera, Ekonomia Zientzietan diplomatua eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua da UNEDen eta badu Antzerkiko Unibertsitate Masterra UNIRen.

Gabalzeka Antzerkian (1970etik) eta Puntido Teatron parte hartzen du, aktore edo zuzendari modura. Bere lan garrantzitsuenen artean Laura Laiglesia zuzendutako «El ruso que ríe» eta «El gran teatro del mundo» daude. Bere azken lanen artean, «Novecientos. La leyenda del pianista en el océano» eta Tomas Muñozek zuzendutako «La vida vivida y por vivir».

Aktore bezala parte hartu du Montxo Armendarizen «Silencio roto», María Sereskyren «Lo nunca visto» eta Tuti Fernandez «La Fuga» luzemetraietan ere, besteak beste.

XABIER SALVO



Hauxe izango da bere lehengo lan profesionala, teknikari-kantautorearen pertsonaia delarik.

Testu aldetik pertsonaia txikia bada ere, presentzia musikal handia dauka.

Xabier antzerkitik gertu egon da beti, familiako tradizioa baita. Bere ibilbidea bakarriketak eginez hasi zuen eta teatro amateurren hainbat lanetan ibilia da Gabalzeka Teatroekin ere bai.

Javier Salvo aitarekin batera sortu zuen "Di papá. Trantsizio baterako abestiak ". Antzerki-kontzertu pieza honetan, aita eta semeak bakoitzak bere gaztaroa nola bizi izan zuen partekatzen zuten, trantsizioko abestien bidez.

Gitarrajolea izan da "La Pseudobanda" taldean eta urteak eman zituen Nafarroako herri desberdinetan jotzen eta abesten. Hainbat ekitaldietan ere, aurkezlea izan da.

JARE SALVO

Adrianaren alaba eta Javierren biloba da; neskaxa honek oso txikitatik sentitu du familiaren beharragatik antzerkia oso gertutik. Beti kanpotik eta entsegu-aretoetan, baina orain agertokira igoko da lehen aldiz.



IBILBIDEA BOGA-BOGA

2018. urtetik, Boga-Bogak formatu txiki eta ertaineko sormen desberdinak eraman ditu aurrera.

LLUEVEN VACAS/BEHI-JASA

Llueven vacas/Behi-Jasa. Nafar Gobernuaren diru-laguntzaz sortutako proiektu honek Erriberriko Jaialdiko Egoitzarako diru-laguntza jaso zuen 2022.ean. Gayarre antzokian estreinatu zen urte horretan bertan. Carlos Be autoreak idatzitako testua honek Berdintasun Ministerioko Berdintasun zigilua jaso zuen 2017.ean.

AMAK. UKO, IRRI EDO SAKRIFIZIO

Musika, antzerkia eta dantza ikuskizun honetan, antzerkiaren ama garrantzitsuen bidez, amatasunaren inguruko gogoeta bat eskaintzen du. Nafarroako jaialdi ezberdinetan aurkeztu den pieza da hau.

DESKUBRIENDO A HAMLET

2019ko Erriberriko Antzerki Poetikako Ziklorako hautatu zen pieza laburra, 2020ko udan "Oinak Hodeietan" jaialdirako egokitua izan zena.

PÍNTAME-PINTAKETAN

Yarlekurekin koprodukzioan, obra 2019an estreinatu zen Gayarre Antzokian gaztelaniaz eta Tafallako Kulturgunean euskaraz. David Ramiro Ruedaren testuaren egokitza pen da. Hiru urtez egon zena Madrilgo antzokietan.

Kolaborazioak:

Beste erakundeetarako sormenetan parte hartu izan du Boga-Bogak.

"Porno. Desioari buelta bat" Indarkeria sexualaren prebentzioan lan egiten duen programa.

"Leire eta Jon" Galkidea kooperatibarako enkarguz sortutako pieza hau "Ekin eta sortu zeure istorioa" programaren barruan.

"Amets egiten nuela amestu nuen" pieza "Burlata, Berdintasunerako Hiri Hezitzailea" proiektuaren barruan sortu zen. Burlatako Berdintasun Alorrak Ibain aholkularitza-enpresari enkargatutako kaleko pieza komunitarioa da.



(Informazio gehiago **HEMEN**)

PRENTSA

TV. NAVARRA. EL CAMERINO



DIARIO DE NAVARRA DIGITAL



CADENA SER. HOY POR HOY



DIARIO DE NOTICIAS DIGITAL



EUSKALERRIA IRRATIA



KARRIKA KONTARI ALDIZKARIA




LA VOZ DE LA MERINDAD





KONTAKTUA



bogabogaprodukzioak.com
@boga_boga.produkzioak
Adriana Salvo 676419428
bogabogainfo@gmail.com